

Elkarte, herrialde edo erakunde handienaren atzean pertsonak daude. Pertsonak eratzten ditugu gerrak nahiz paktuak; pertsonak osatzen ditugu trintxerak nahiz dantza-kateak. Pertsonak antolatzen ditugu lehiak nahiz topaketa lauak. Pertsonak eraikitzen ditugu harresiak nahiz zubiak.

Pertsona bakoitzaren baitan dago dena, suntsitzeko indarra nahiz sortzeko kemena. Zenbat eta hobeto ezagutu nork bere burua, errazago ezagutuko dugu ingurua. Zenbat eta hobeto ezagutu nork bere baliabide eta mugak, argiago hurbilduko gara bestearengana.

NI-tik GU-rako bidean naukazue, beraz. Hantxe aurkituko nauzue, hots, hementxe.

Nirea zure
zurea nire,
nirea eta zurea
gure.

Yolanda Arrieta

yolarrieta@gmail.com

637000501